

DIRU-ITURRIAK

Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago gure bezeroa eskaintzen ari garen produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Gure produktuak soilik online salduko ditugunez, ordainketak webgunearen bitartez egingo dira. Ordaintzeko, PayPal eta kreditu eta debitu txartel elektronikoak onartuko dira, eta hemen produktua, neurtzailearen zerbitzua eta garraioa kobratuko dira, egoeraren arabera; hau da, prezio espezifiko batetik gorakoak garraioa doan izango dute (100€-tik gora). Horrela, bezeroak produktu gehiago erostera bultzatuko ditugu.

Zenbatekoa kalkulatzeko, diseinu bereko jantzi guztiek prezio bera izango dute. Inklusibotasuna defendatzearen, diseinu bera berdin kobratuko da beti, jostean aldaketa edozein dela ere. Gure produktuak oso mota zabalekoak direnez, ez dago prezioa espezifikatzeko modurik, baina prezioak normalean baino garestiagoak izango dira (~%200eko igoera). Gainera, amaierako prezioari neurtzailearen zerbitzua, prezio aldakorra duena (distantziren arabera, denbora...), eta garraioa gehitu behar zaizkie. Halaber, neurtzailearen zerbitzua ez eskatzeko, zure kontura egin ditzakezu neurketak.